



Arartekoaren 2021R-153-20 Ebazpena, 2023ko otsailaren 24koa. Honen bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio emandako ebazpena ofizioz ezetsi dezan eta ordaindutako kopurua kexagileari itzul diezaion, ordainarazpen horrek ez duelako Udaltzaingoaren Zerbitzu Berezien Tasa arautzeko Ordenantza Fiskalaren estaldurarik.

Aurrekariak

1. Kexagileak kexa bat aurkeztu du Arartekoaren aurrean, eta horretan adierazi du ez dagoela ados Bermeoko Udalak izandako jarduketa batekin.

Azaldu duenez, 2018ko ekainaren 9an, bizikletaz Bermeotik zihoala, trafiko istripu bat izan zuen, eta bertan zauritu egin zen; horrenbestez, Gurutzetako Ospitalera eraman zuten anbulantziaz.

Gaineratu duenez, ekainaren 11n Bermeoko Udaleko zerbitzuetan udaltzainek prestatutako txostenaren kopia bat eskatu zuen, udaltzainak istripua izan zuen tokian bertaratu baitziren eta identifikazio eta harremanetarako datuak eskatu zizkioten.

Azaldu zuenez, toki entitatetik eskaera idatziz egiteko eskatu zioten; horretarako, *“eskaera-orria instancia general (IN-G 03/03-13)”* izenarekin errotulatuta ageri den dokumentua bete zuen. Nabarmendu duenez, ordaindu behar zuen kuota 257,04 eurokoa zela ez zuen jakin harik eta 2018ko ekainaren 20ra arte. Egun horretan mezu elektronikoa jaso zuen Antolakuntza-Bermeoko Udaletik, eta bertan honako hau azaldu zioten: *“egun on: adjuntamos autoliquidación, una vez abonado enviaremos el informe”*. Atxikitako dokumentua ordainketa gutun bat zen, autolikidazioa izenekoa; ordaintzeko borondatezko aldia 2018ko uztailaren 2an bukatu zen.

Kaltetuak azaldu duenez, tasaren kopuruaren berri izan bezain pronto, berehala, toki entitatearekin harremanetan jarri zen, eta eskaera bertan behera utzi nahi zuela ahoz adierazi zuen. Hala, ez zitzaion arraroa iruditu txostenaren kopia ez jasotzea.

Nolanahi ere, hilabete batzuk geroago premiamenduzko probidentzia bat jakinarazi zitzaion; bertan, zor nagusiaz gain, Bermeoko Udalak premiamenduzko prozeduraren erreklamarak ordaintzeko erreklamatu zion. Kexagileak azaldu duenez, kalte gehiago ez izateko, eskatutako kopurua ordaindu zuen 2019ko martxoaren 26an, eta autolikidazioaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen; azken horretan, tasa kobratzea zalantzan jartzen zen.

Argudiatu zuenez, denbora igaro arren, toki entitateak ez zuen errekurtsioa berriaz ebatzi eta ez zion Udaltzaingoaren txostenaren kopia helarazi.





Hain zuzen ere, errekurtsioan azaldu zuen ez zegoela batere ados tasa hura kobratzearekin, eta kopuru zehatzaren berri ez zuela izan aurretik, kopuru hark fotokopia sinple batzuen kostua aise gainditzen zuen arren. Halaber, azaldu zuen ez ziotela esan txostenaren kopiari uko egiteak ez zuela inolako efekturik izango; bukatzeko, erreklamatutako tarifa abusu gisa jo zuen, aurretiaz eginda zegoen atestatu baten kopia jasotzea zelako, berak ez baitzuen inolako lan gehigarrikeragin eragin ordurako eginda zegoen lanaz gain, udaltzainen polizia jarduera zorrotzaren barruan.

2. Arartekoa, kexa ikusita, Bermeoko Udalarekin harremanetan jarri zen, eta sustatutako errekurtsioaren berariazko ebazpenaren inguruan galdetu zuen, lehenengo eta behin. Bidenabar, tasa kobratzea eragin zuen txostenaren kopia eskatu zuen, eta kobratu beharra justifikatzen zuen ordenantza fiskalaren argitalpenari buruzko informazioa bildu zen.

Halaber, agerian jarri zen herritarrek hartutako erabakiak haiek alde aurretik duten informazioak baldintzatzen dituela, dela herritarrek duten informazioak, dela udal zerbitzuetan emandako informazioak. Beraz, erakunde honek nabarmendu zuen oso garrantzitsua dela herritarrek aurretiaz jasotzen duen informazioa, hain zuzen ere aurkezten dituzten eskaeretatik eratorriko diren kostu ekonomiko zehatzei buruzko informazioa, kasu honetan, Udaltzaingoak egindako dokumentu baten kopiaren eskaeratik sortutakoak.

Hala, azaldu zenez, administrazioaren jardunbide egoki batek erraztu beharko luke, txostenak egin edo kopiak eman aurretik, eskatzaileek argi eta garbi jakitea zerbitzu hori ez dela doakoa, hau da, tasa bat ordaindu behar dela, eta horri dagokion zenbateko zehatza. Informazio hori, besteak beste, ahoz jakinarazi daiteke, baita udaleko zerbitzuek beraiek egin ditzaketen jakinarazpen estandarren bitartez.

Bigarren informazio eskaeran, erakunde honek eskatu zuen emandako *likidazioa* ofizioz ezeztatu zezaten, eta kexa aurkeztu zuen kexagileari ordaindutako kopuruak itzultzeko. Nolanahi ere, toki entitate horrek 2020an Gernikako Epaitegira igorritako atestatuaren kopia eman zuenez, likidazio berria ematea zegokion, dokumentuen fotokopien kontzeptuarekin, polizia atestaturatu osatzen zuten orri kopuruaren arabera.

3. Bermeoko Udalak, gure informazio eskaerei emandako erantzunetan, une oro bere jarduna defendatu du eta bere erabakiak Udaltzaingoaren Zerbitzu Berezien Tasa arautzeko Ordenantza Fiskalean jasotako aurreikuspen zehatzetan oinarritu du; ordenantza 2018tik dago indarrean. Horrez gain, udal zerbitzu eta jarduerak emateagatik tasak ordaintzea erreklamatzeko aldera, gure ordenamendu juridikoak toki araubidearen eta toki ogasunen arloan udalerriei ematen dizkien ahalmenak nabarmendu ditu. Bidenabar, tasa autolikidazio araubidean eskatu zela nabarmendu da, horixe baita ordenantza fiskalak xedatu duen kudeaketa sistema; horrenbestez, autolikidazioan ez dago administrazio egintzarik eta, hortaz, Bermeoko Udalak ezin du parte hartu eta





ez dagokio jasotzea zergadunak ondorengo inpugnazioan erabilitako argudioak.

Hala, Bermeoko Udalak planteatu du 2019ko martxoaren 25eko idatzian kaltetuak adierazi zuela autolikidazioen aurkako errekurtsua aurkezten zuela, baina Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko aurreikuspenen arabera ezingo litzateke autolikidazioen aurkako inolako errekurtsorik aurkeztu, pertsona zergadunak berak aurkeztu baitu autolikidazioa, eta administrazioak ez du egintzarik eman.

Halaber, azaldu duenez, 39/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eskaera eta autolikidazioa baliogabetzeko beharrezkoa izango litzateke txosten eskaera berariaz baliogabetzeko eta autolikidazioa baliogabetzeko idatzi bat aurkeztu izana. Kexagileak ez zuten horrelakorik egin.

Horrez gain, kexagileak ordaintzeko betebeharraren berri ez izateari dagokionez, toki entitate horrek argudiatu du, Kode Zibilaren 6.1 artikuluekin bat etorritik, legeak ez ezagutzeak ez duela legeok ez

betetzetik desenkusatzeko.

Argudio hori deigarria da, tasa kudeatzeko araubidea autolikidazioa izan zela nabarmendu delako, eta, horrenbestez, kexagileak berak kalifikatu eta zenbatu zuela tasa. Horrez gain, gure iritziz, ez du aintzat hartzen tasa horri buruzko ordenantza fiskala ez zela aldizkarietan osorik argitaratu. Gogoeten inguruko atalean alderdi horretan sakonduko da.

Azkenik, Bermeoko Udalak defendatu du beste toki entitate batzuetan ere udaltzaingoaren zerbitzu berezien antzeko kasuak zergapetu egiten direla, tasa bat ordainaraziz; hala, ondorioztatu duenez, ez direnez gertatu Zergari buruzko Foru Arau Orokorren 225.1 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak, ez dagokio ordaindutako autolikidazioa ofizioz baliogabetzea.

Gogoetak

1. Kexa honetan jaso da herritar bat ez dagoela ados Bermeoko Udalaren jarduketarekin, lehenengo eta behin, tasa bat ordaintzeko erreklamatu zitzaizkion (257,04 eurokoa) polizia txosten baten kopia eskatu zuenean, bere ustez herritarra bera zauritu zen trafiko istripu baten harira egin zena, eta, bigarrenik, aipatutako kopurua kobratzea bertan behera uzteko berak egindako eskaera ez zelako aintzat hartu.
2. Eskatzen den tasa zuzenbidearekin bat datorren edo ez landu aurretik, kexagileak argitzeko eskatzen duena, zehaztu behar da erakunde honen asmoa ez dela sekula izan Bermeoko Udalak tasak ezartzeko duen ahalmena





zalantzan jartzea, ordenantza fiskal bat onartu eta argitaratuz, udal jarduerak egin eta zerbitzu publikoak emateagatik.

Hau da, kexa honetan ez da zalantzan jartzen Bermeoko Udalak karga jarri ahal dion udaltzaingoak zerbitzu bereziak emateari. Agerian jartzen saiatzen ari garena da, aldiz, espediente honetan jasotako kasu zehatzean, Bermeoko udaltzaingoak egindako jarduketa, Arartekoaren aburuz, ez dela polizia zerbitzu berezien prestazioaren esparruan sartzen; aitzitik, polizia funtzioen esparruan sartzen da, organo judizialen laguntzaile diren aldetik, ustez birtualtasun penala duten gertaerak ikertuz eta egiaztatuz.

3. Bermeoko Udalak aurkeztutako alegazioak (besteak beste 2018tik indarrean dagoen Udaltzaingoaren Zerbitzu Berezien Tasa arautzeko Ordenantza Fiskalaren testuari erreferentzia egitean) eta kexa hau izapidetzean planteatu den guztia euskaraz egin da.

Horrek ez du berez inolako eragozpenik sortzen toki entitate horrek erakunde honekin duen harremanean.

Nolanahi ere, toki entitate horrek dakien moduan, erakunde honen ebazpenak bi hizkuntzatan eskaintzen dira. Hala, Bermeoko Udalak onartu eta argitaratutako testuak gaztelaniazko bertsioan ere eduki beharra planteatu du erakunde honek.

Emandako informazioan aipatu denez, 2018ko ordenantza fiskalak Bermeoko Udalaren 2017ko abenduaren 22ko saioan onartu ziren behin betiko, eta 247. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu ziren, 2017ko abenduaren 29koa.

Nabarmendu behar da 2017ko abenduaren 29ko aldizkari horretan urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko ziren aldaketa zehatzak baino ez zirela argitaratu, eta hala ageri da testuan bertan, honako hau baitio:

“2018. urterako tasa eta zerga aldaketak azaldu dira. Ez diranak aipatzen, mantendu egingo dira”

Hain zuzen ere, udaltzaingoaren zerbitzu berezien tasari dagokionez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean tarifa berri hauek argitaratu ziren, honela:

– *Udaltzaingoaren zerbitzu berezien tasen %2 igotzea:*

	2018 (€)
1. Garraio astunetan gidatu, zaindu eta laguntzea, zerbitzu bakoitek	128,52
2. Zonak mugatzea, trafikoa moztu eta erregulatzea, zerbitzu bakoiteko	38,56



<i>3. Interesdunak diran partikularren eskariz, afera zibiletan egiaztapenak egin eta polizia-txostenak igortzea:</i>	
<i>3.1. Udaltzaingoaren esku hartze edota egiaztapenaren polizia-txostenaren kopia emotea</i>	<i>64,26</i>
<i>3.2. Trafiko istripuan Udaltzaingoaren esku hartze edota egiaztapenaren poliziatxostenaren kopia emotea</i>	<i>128,52</i>
<i>3.3. Trafiko istripuagaitik Udaltzaingoak egindako atestatuaren kopia emotea</i>	<i>257,04</i>
<i>4. Ibilgailuen hondakin solido legezko tramitazioa</i>	<i>77,11</i>
<i>5. Udaltzaingoak herritarren segurtasun edota zaintza zerbitzuetako jardunean hirugarren batzuen ondasunen kalteetat ohartuta egiten dauzan txostenak emotea, agiri eskatzailea kaltetua bera ez danean</i>	<i>64,26</i>

Nabarmendu behar da ordenantza fiskal horren testu osoa euskaraz argitaratu zela Bermeoko Udalaren webgunean, eta ez zela zehaztu gainerako xedapen arautzaileak noiz onetsi ziren edo non aurki zitezkeen argitaratuta, 2018an ordenantza fiskal horren bertsioa osatzea ahalbidetuko zutenak, gaztelaniazko bertsioan; zerga betebeharren funtsezko zenbait alderdiri eragiten zioten, besteak beste, sortzapena, subjektu pasiboak, kudeaketa eta likidazioa hizpide zituztelako.

Atal horretan euskaraz honako hau adierazi zen, hitzez hitz:

“AZKEN XEDAPENAK

Onarpena: Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udaltzarak 2013ko.....ean egindako Osoko Bilkuran.

Indarrean sartzea: 2014ko urtarrilaren 1an

Argitaratua: BAO.....”

Erakunde honek, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren datu basean egindako bilaketan, 2014. urterako ordenantza fiskalen aldaketaren hasierako onespeneraren argitalpena baino ezin izan du aurkitu, eta tartean Udaltzaingoaren Zerbitzu Berezien Tasa arautzeko Ordenantza Fiskalaren testu osoa ageri da. (227. BAO, 2013ko azaroaren 27koa).

Argitaratutako iragarkia jendaurrean jarri zen, eta epe jakin bat eman zuen aztertzeko, eta, hala badagokio, interesdunek erreklamazioak aurkezteko *“30 egun, iragarki hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.”*

Nabarmendu behar da ordenantza fiskalen testuak aztertu eta horren inguruko alegazioak aurkezteko jendaurrean jartzeko epeak 30 egunekoak zirela 2014an, eta, hortaz, ordenantza haiek ezin izan ziren indarrean sartu 2014ko urtarrilaren 1ean, 2018ko ordenantzaren azken xedapenean azaldutakoa gorabehera; testu hori euskaraz jaso da.

30/1992 Legearen 48.1 artikulua (2013ko abenduan indarrean zegoen administrazio prozeduraren araua) honako hau ezarri zuen epeak neurtzeari zegokionez: *“Legeek edo Europako erkidegoko arauak besterik adierazten ez duten bitartean, epeak egunetan jartzen badira, egun baliogabeak bakarrik hartuko dira kontuan; beraz, ez dira zenbatuko igandeak eta jaieguntzat jotakoak. Epeak jartzerakoan egun guztiak hartu nahi badira kontuan, horren berri eman behar da jakinarazpenetan.”*

Hasierako onespena 2013ko azaroaren 27an argitaratu zen, eta jaiegunak eta igandeak zenbatu gabe, esan behar da ez zirela 30 egun igaro 2013ko azaroaren 28tik abenduaren 31ra. Hau da, 2014ko urtarrilaren 1ean oraindik ez zen igaro alegazioak aurkezteko epea, jendaurrean egoteko iragarkian azaldutakoa, eta, hala ere, Bermeoko Udalak ordenantza horiek 2014ko urtarrilaren 1ean sarrarazi zituen indarrean. Horrez gain, ez dago jasota behin betiko onartutako testua BAOan argitaratu zenik edo, hala badagokio, behin-behineko izatetik automatikoki behin betiko testutzat jo zen testuaren erabakia.

Izan ere, 2014. urterako ordenantza fiskalen aldaketen hasierako onespeneren iragarkiaren testuan jasotako aurreikuspen bat ez zen zuzen egokitzen ordenantza fiskalak onesteko prozedurara, Bizkaiko Lurralde Historikoan Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 16. artikulua ezarritakoa.

Hain zuzen ere, 2013ko azaroaren 27ko BAOan argitaratutako iragarkiaren azken paragrafoak honako hau adierazi zuen, hitzez hitz *“Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazioa edo oharpenik jaso gabe, ordenantzaren aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe eta iragarkirik ere ez. Horregaitik guztia argitaratzen da.”*

Horri dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoan Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 16. artikulua jasotako aurreikuspenetara jo beharra dago; horrek haxe adierazten du horren inguruan:

16. artikulua. — Zerga-ordenantzen gertaketa, argitalpena eta publizitatea

1. Toki korporazioek beren tributuak ezarri, ezabatu edo antolatzeko hartzen dituzten behin-behineko erabakiak, edota dagozkien tributu kuotak zehazteko behar diren elementuak finkatzeko hartzen dituztenak, baita zerga-ordenantzen onspen eta aldaketak ere, zein bere erakundearen iragarki oholean erakutsiko dira hogeita hamar egunez; epe horren barruan, interesdunek espedientea aztertzeko eta bidezkoz hartzen dituzten erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.

2. Toki erakundeek, edonola ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte erakusketa-iragarkiok. Horrez gain, hamar mila bizilagunetik gorako



zuzenbidezko biztanleria duten erakundeek lurralde historiko honetan gehien saltzen diren egunkarietako batean argitaratu behar dituzte iragarkiak.

3. Iragarkiak jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan, bidezkoak diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte toki korporazioek, aurkezturiko erreklamazioak ebazteko, halakorik bada, eta ordenantzaren behin betiko testua, hura indargabetzea edo behin-behineko erabakian aipatzen diren aldaketak onesteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa izandako erabakia behin betikotzat hartuko da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango osoko bilkurak erabakia hartzea.

4. Edonola ere, bai aurreko paragrafoan aipaturiko behin betiko erabakiak, kategoria horretara automatikoki igarotzen diren behin-behineko erabakiak barne, bai ordenantzen edo beren aldaketen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean jarriko harik eta argitalpen hori gauzatu arte.

5. Hogei mila bizilagunetik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udallerrietan, bertako tributuak arautzen dituzten zerga-ordenantzen testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lauhilekoaren barruan.

Edonola ere, argitaraturiko zerga-ordenantzen kopiak eman beharko dizkiote toki erakundeek eskatzen dituen orori.

Hau da, 16. artikuluko 4. puntuarekin bat etorritik, ezinbestekoa da, jendaurrean jartzeko epea agortzeaz gain, behin betiko onetsitako testua edo behin-behineko izatetik automatikoki behin betiko testutzat jotako testua BAO-n argitaratzea, “ez dira indarrean jarriko harik eta argitalpen hori gauzatu arte”. Toki entitate horrek ez du jarduketara hori ziurtatu.

Adierazi behar da ordenantza fiskalak prestatu, argitaratu eta jendaurrean jartzeari buruzko aurreikuspen horiek tokiko erakundeek nahitaez aplikatu behar dituztela eta, ondorioz, ezin dituztela modulatu, ezta baztertu ere jardueren baliogabetasunaren akatsean erori gabe.

Horri buruzko jurisprudentzia konstantea da, eta prozeduraren garrantzia azpimarratzen du; batik bat, informazio publikoari eta erabakiak aldizkarietan argitaratzeari dagokienez. Are gehiago, funtsezkotzat jotzen dituen bi izapide horietako edozein ez gauzatzea ordena publikoaren okertzat hartzen du, eta horrela onartutako ordenantza nahiz ordenantza aplikatzerakoan gauzarazi diren ordainketak guztiz baliogabe geratzea eragiten duela azaltzen.

“cuando se trata de disposiciones de carácter general, el quebranto del cauce formal de su elaboración, es decir, la vulneración de una norma de superior jerarquía reguladora del procedimiento a seguir en la creación de la disposición reglamentaria, produce, como regla general, la nulidad de pleno



derecho de la disposición (...) y ello porque sólo siguiendo tal cauce formal, que implica un límite al ejercicio de la potestad normativa, se garantiza la legalidad, acierto y oportunidad de una disposición que pasa a integrar el ordenamiento jurídico.” (Auzitegi Gorenaren 1988- 05-10eko Epaia, 2. Oinarri Juridikoa, ildo beretik, eta besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2011-12-19ko Epaia eta Auzitegi Gorenaren 2013-10-03ko Epaia).

Horrez gain, erakunde honek nabarmendu nahi du herritarren jarduna erraztu egin behar dela beti, segurtasun juridikoa emanez indarrean dauden ordenantza fiskalen testuei dagokienez. Segurtasun juridikoa ez da bermatzen baldin eta aldizkarietan argitaratutako testu bakarra mugatzen bada ekitaldiari eragiten dioten tarifa aldaketa zehazterara; izan ere, ordenantzako gainerako xedapenak, ekitaldi horretan indarrean zeudenak, ez dira herritarren esku egon.

4. Aurreratu den moduan, toki entitate horrek bere jarduna argudiatzeko oinarritzat hartu ditu Udaltzaingoaren Zerbitzu Berezien Tasa arautzeko Ordenantza Fiskalaren aurreikuspen zehatzak, hain zuzen ere, 2. artikuluko laugarren atalean, kobratutako tasaren zerga egitatea horrela definitu baitzuen: *“3. Interesdunak diran partikularren eskariz, afera zibiletan egiaztapenak egin eta polizia-txostenak igortzea (...) 3.3. Trafiko istripuagaitik Udaltzaingoak egindako atestatuaren kopia emotea 257,04 €”*

Horrez gain, zehaztu da gai zibilen polizia txostenen kopiak lortzeko alde zuzenetik ordaindu egin behar dela litzatekeela, eskaerarekin batera, Berh@z bulegoan, autolikidazio bidez (Udaltzaingoaren Zerbitzu Berezien Tasa arautzeko Ordenantza Fiskalaren 6.4 art.).

Horren haritik, Bermeoko Udalak kexagileari 2020an igorritako ebazpenean honako hau azaldu zuen: *“Udaltzaingoaren txostenaren kopiak eskatzean tasa sortzen da automatikoki eta autokitapena ordaindu beharra. Kasu honetan 36/2018/14 autokitapena izan zen, eta gaur egun ordainduta dago. Eskari eta autokitapen hau baliogabetzeko 39/2015 Legearen 11. artikulua jasotakoari jarraituta, idaztia aurkeztu behar izan zen espresuki baliogabetzeko eta egindako eskaria eta autokitapena anulatzeko, eta ez zen horrelakorik aurkeztu.”*

Halaber, toki entitateak zehaztu du kexagileari erreklamatutako tarifak bat zetozeela onartu eta 247. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2017ko abenduaren 29an argitaratutako kuotekin.

Bermeoko Udalak zehaztu du 2020ko ekitalditik polizia txostenen kopiak ematea atera egin dela Udaltzaingoaren Zerbitzu Berezien Tasa arautzeko Ordenantza Fiskalaren esparrutik; hala, harrezkero, gai horren erregulazioa agiriak emateagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren testuan jaso da.



Arartekoak azaldu behar du toki entitate horrek 2018ko ekainaren 20an emandako autolikidazioak, eta kobratzeko bideratutakoak, 257,04 euroko kopurua ordaintzeko erreklamatzeko baliatutako kontzeptuari zegokionez identifikatu zuenez, *"Udaltzaingo Zerbitzuak"*. Hecho Imponible: Txostena, en Kalea Ispizua tar Segundo, Tfa: Istripuaren Atestatu txos.

Kexagileari emandako administrazio jarduera zehatza ordainarazteari dagokionez, erakunde honen aburuz, istripu horretan polizia bertaratu eta esku hartzea eragin zuen abiapuntua zein izan zen hartu behar da kontuan eta, horrenbestez, zergatik egin zen polizia atestatua, ondoren horren kopia baita kexagileak eskatu zuena.

Hala, aintzat hartu behar da polizia istripuaren tokira joatea eta, ondoren, polizia jarduketak bideratzea ez zela gertatu herritar partikular batek hala eskatu zuelako, udaltzainak bertaratu eta esku hartzeko erreklamatu zuelako, garrantzia soilik zibila zuen ezbehar bati buruzko txosten bat egiteko, esaterako bi ibilgailuk istripuan izandako kalteengatik; aitzitik, udaltzainak espazio horietan bertaratu ziren lesioak eragin zituen trafiko istripu bat gertatzearen ondorioz.

Hau da, erakunde honen aburuz, trafiko istripu batean pertsona zauritu bat egotea erabakigarria izan zen poliziak esku hartzeko; istripu horretan motor bidezko ibilgailu bat ere inplikaturik zegoen. Lesioak eragin zituen trafiko istripu horrek, gure ustez, eragin zuen udaltzainak bertan bertaratzea, beharrezko jarduketak eta diligentziak egiteko, egiaztatze eta ikerketa lanak egiteko, ondorio penalak izan zituzketen gertaera jakin batzuei dagokienez. Gainera, ulertzen dugunez, halaxe jaso zuen -berariaz- izapidegile buruak berak trafiko istripuaren ondoriozko atestatua irekitzeko diligentzian, hitzez hitz honako hau esan baitzuen: *"a las 10:50 horas del 9/Junio/2018 se tuvo conocimiento mediante Llamada telefónica de la existencia de presunto T-ACCD.TRAF. ISTRIPUA (ZAURIAK), ocurrido en ISPIZUA TAR SEGUNDO por lo que se procedió a Comisionar al Agente con nº 040, para realizar las correspondiente Diligencias, como SECRETARIO de las mismas"*.

Atestatu hau osatzen duten akta eta diligentzien multzoa igorri egin zen, atestatua igortzeko diligentzian ageri denez, Gernikako Instrukzioko Epaitegi Dekanora, horrek, hala bazegokion, prozedura judiziala izapidetzeko, gertatutako, deskribatutako eta diligentziazatutako gertaerek ondorio penalak zituztela ulertuz gero.

Hau da, erakunde honen aburuz, udaltzaingoak egindako lanak, atestatu hau prestatzerakoan, polizia lanen barruan kokatu zen, Bermeoko udaltzainek hala hartu baitzuten esku, *polizia judicial* modura, eta, hala, ustez zigor ondorioak izango zituzten gertaerak ikertu eta egiaztatzeko esparruan, hain zuzen ere lesioak eragin zituen trafiko istripu baten kasuan.





Horren ondorioz, erakunde honen aburuz ez zen gertatu ordenantza fiskalak definitu duen zerga egitatea, udaltzaingoak ematen dituen beste zerbitzu batzuk eman eta kobratzeari heltzen diona eta polizia funtzioen barruan kokatzen dena.

Ordenantza fiskalak ongi definitu zuen moduan, tasa jakin bat izango dute udaltzaingoak, "eskatuta", ematen dituen zerbitzu bereziek, hau da, partikular interesatuek zerbitzu horiek egitea eskatu behar dute eta, gainera, izaera zibileko gaien inguruko egiaztapenak eta polizia txostenak egiten dira. Gure ustez hizpide dugun kasuan ez zen horrelakorik gertatu, lesioak eragin zituen gertaerak epaitegira bideratu baitziren, aztertzeko.

Adierazi denez, kexagileak, istripua gertatu eta handik egun batzuetara, polizia txostenaren kopia bat emateko eskatu zuen, bere ustez ordurako eginda zegoena, eta Bermeoko Udaltzaingoak 2018ko ekainaren 20an Gernikako Epaitegi Dekanora igorri zuen atestaturia izan zena.

Jarduketak agiri batean islatzean datza polizia atestaturia, ustez delitua den gertaera bat argitze aldera.

Hau da, istripu egunean kaltetuak ez zuen eskatu udaltzainak bertaratzeko edota txosten poliziala egiteko, bidearen bi erabiltzailearen arteko erantzukizun zibila ebazteko.

Bestalde, adierazi den moduan, trafiko istripua gertatu eta bi egun geroago, kexagileak txostenaren kopia bat eskatu zuen, egiaz lesioak eragin zituen trafiko istripu baten polizia atestaturia zena, hain zuzen ere, lesioen emaitza horregatik Gernikako Epaitegira bideratu zena, balizko erantzukizun penala argitzeko.

Argudio hori, gure ustez, berretsi egin da Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 85.1 artikuluko aurreikuspenekin; honako hau ezarri zuen:

"1. Cuando en un procedimiento sancionador se ponga de manifiesto un hecho que ofrezca indicios de delito perseguible de oficio, la autoridad administrativa lo pondrá en conocimiento del Ministerio Fiscal, por si procede el ejercicio de la acción penal, y acordará la suspensión de las actuaciones. En todo caso, cuando se produzca un accidente de tráfico con resultado de lesión o muerte, la autoridad administrativa lo pondrá en conocimiento de la autoridad judicial, acompañando la comunicación del oportuno atestado."

Bada, aginduaren idazketa hori berriki txertatu da eta, horrenbestez, ez zegoen indarrean azaldutakoa gertatu zenean; hala ere, argi geratu da lesioak edo heriotza eragiten duen trafiko istripu baten atestaturia garrantzia penala duela.



Laburbilduz, erakunde honen aburuz, ordenantza fiskalean eta zergaren mende dagoen zerga egitatea ez zen sekula gertatu.

5. Tasa horren kudeaketari dagokionez, Bermeoko Udalak nabarmendu duenez, autolikidazio bidez egiten da. Horrela dio Ordenantza Fiskalaren 6.4 artikulua: *“Interesdunak diran partikularren eskariz Udaltzaingoak egindako afera zibileko polizia-txostenen kopiak eskuratzeari jagokozan 3.1, 3.2 eta 3.3 epigrafeetako kuotak aurretiaz, eskariagaz batera, ordaindu beharko dira autolikidazioa eginda berh@z bulegoan. Ordaindu barik ez da emongo txostenaren kopiarik”*

Gai horri dagokionez, Bermeoko Udalak autolikidazioen aurkaratze araubidea eta ezaugarriak zehaztu ditu, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 118. artikuluan jasotako xedapenetara joz; honako hau dio bertan:

“1. Autolikidazioak aitortenak dira; beraien bidez zergapekoek, Administrazioari zerga likidatzeko behar diren datuak eta bestelako datu informatibo batzuk emateaz gainera, euren kabuz egiten dituzte zerga-zorra zehazteko eta zenbatekoa sartzeko edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazteko behar diren kalifikazio-eragiketa eta kalkulu guztiak. Halaber, autolikidazio izango dira berariazko arautegian ezarritako baldintzak betetzen dituzten zergapekoek, Zerga Administrazioak lagunduta, aurreko idatz-zatian aipatutako jarduketak egiteko aurkezten dituzten aitortenak.

2. Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, zuzentzeko eskatu ahal izango du arau bidez ezarritako prozedurari lotuta.”

Horrez gain, Bermeoko Udalak Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 121.3 artikuluko c) atalaren aurreikuspenak aipatu ditu, honako hau baitio:

“Autolikidazio bidez hasitako prozedura honela amaituko da:

c) Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura bat hasi delako, foru arau honetako 124 bis artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarritako kasuetan.”

Toki entitate horrek, bidenabar, planteatu zuen autolikidazioak berrikusteko prozedura 124 bis artikuluan arautzen dela, 1. atalean, eta ez dela aplikagarria kasu honetan, arau horrek honako hau diolako:

“1. Zerga Administrazioak ofizioz hasi ahal izango du behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura, kasu hauetan:

a) Autolikidazio bidez hasitako prozedura bat iraungitzearen ondorioz amaitzen denean. Dena den, foru arau honetako 121. artikuluko 3. zenbakiko



b) letrako hirugarren paragrafoan jasotako kasuetan, derrigorrezkoa izango da prozedura hau hastea.

b) Zergapekoari dokumentazioa aurkez dezala eskatzeko Zerga Administrazioak prozedura hastea erabakitzen duenean (autolikidazio bidez hasitako prozedura bat iraungitzearen ondorioz amaitu aurretik), edo zergapekoaren tributuko egoera erregulatu beharra egiaztatzen duten zantzuak daudenean.

c) Zerga Administrazioak ikusten duenean behin-behineko likidazio baten bidez berrikusi den autolikidazioan edo aitorpenean foru arau honetako 124. artikuluko 2. zenbakia jasotako inguruabarren bat gertatzen dela edo aurreko behin-behineko likidazioetan kontuan hartu ez diren beste batzuk.”

Txostenean, Bermeoko Udalak, halaber, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 224. artikuluko aurreikuspenak aipatzen ditu, berrikusteko prozedura bereziak arautu zituena; ondorioztatu zuenez, autolikidazioa ofizioz berrikusteko ez dago zuzenbidean erabat deuseza dela adierazteko inolako kausarik.

Adierazi den moduan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 118. eta 121.1 artikuluetan autolikidazioaren ezaugarriak zehaztu ziren. Zehazki, 121.1 artikulua honakoa dio.

“1. Zergari buruzko arautegian ezarriz gero, beraren kudeaketa zergapekoak autolikidazioa aurkeztuta hasiko da; bertan zergapekoak zerga-zorren zenbatekoa edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehaztu behar du.

2. Autolikidazioaren emaitza diru kopuru bat itzuli beharra bada, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio baten bidez itzuli behar du.”

Zergak autolikidazio bidez kudeatzeko araubideari dagokionez ordenantza fiskalak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek jaso dituzten aurreikuspenak ez datoz bat gertatu eta dokumentatu diren gertaerekin, eta badirudi ezinezkoa dela baieztatzea zergadunak berak egin zituela tasa kalifikatu eta kalkulatzeko eragiketak, ezta udal zerbitzu balizko laguntzarekin ere. Laguntza hori, tamalez, ez da sekula gertatu.

Bestalde, espedienteko dokumentazioak kexagilearen bertsioa berretsiko luke; izan ere, dioenez, ekainaren 11n eskaera orokor bat aurkeztu zuen, eta bertan polizia txostenaren kopia bat emateko eskatu zuen; ondoren, ekainaren 20an, emailaz, ordainketa gutun bat bidali zitzaion (autolikidazioa deitutakoa), 257,04 euroko kopurua ordaintzeko, kontzeptu honekin: *“Udaltzaingo Zerbitzuak”*. *“Hecho Imponible: Txostena, en Kalea Ispizua tar Segundo, Tfa: Istripuaren Atestatu txos”*

Hau da, gure ustez, gertaeren segidak frogatuko luke, ordenantza fiskalean jasotako aurreikuspenak gorabehera, benetan tasa zehatz hori likidazio araubidean kudeatu zela. Hau da, ez zen kexagilea izan (ez zekien poliziaren





zerbitzu berezien truke tasa bat ordaindu behar zuenik) baizik eta toki entitatea izan zen ekainaren 9an hedatutako udaltzaingoaren jarduna kalifikatzeko honako hau esan zuena (erakunde honen aburuz, modu okerrean kalifikatuta, gainera): “polizia zerbitzu berezi bat izan da, partikularrek eskatutakoa, egiaztapenak egin behar zirelako eta gai zibilei buruzko polizia txostenak eman behar zirelako, hain zuzen ere trafiko istripu baten atestatuaren kopia entregatzea”, eta kopurua 257,04 eurotan jarri zuen. Nolanahi ere, ebazpen honen helburua ez da hori.

Toki entitate horrek autolikidazio izena jarri zion kexagileari emailaz igorritako ordainketa gutunari. Autolikidazioak aurkaratzeko toki entitate horrek azaldutako araubidea jarraitu behar da, eta, hain zuzen ere, aurkeztutako autolikidazioaren zuzenketa aurkeztu behar da. Onartu behar da kexagilea ez dela teknikari juridikoa, eta, hortaz, eskatu zitzaion ordainketa ahal izan zuen moduen aurkaratu zuen; bidenabar, bere ustez hasi behar zuen berrikusketa prozesuari izen orokor bat jarri zion, berraztertze errekurtsoaren izena, eta ez zen izen zuzena. Jarduketa hori bideratu zuen, gainera, Bermeoko Udaleko udal zerbitzuetan kexa formal bat aurkeztu ondoren.

Toki entitate horri zegokion eskaerari prozedura tratamendu zuzena ematea, 30/2015 Legearen 115.2 artikulua jaso zituen aurreikuspen zehatzetan oinarrituz, ezarri zenez, *“Errekurtso-jartzaileak errekurtsoari okerreko kalifikazioa jartzea, edo kalifikaziorik ez jartzea, ez da eragozpen izango errekurtsoa izapidetzeko, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera “*

2020ko otsailaren 25ean emandako ebazpenari alkatetza dekretu forma eman zioten, eta aurkeztutako eskaera ezetsi zuen; bidenabar, interesdunari txostena bidaltzea erabaki zen, 2019ko martxoan ordaindu zela egiaztatu ondoren.

Autolikidazioa zuzentzeko eskatu ondoren, toki entitate horrekin adostu behar da zerga administrazioak ebazpen bat eman behar duela, zuzenketa onartu edo ezetsiko duena. Autolikidazioa zuzentzea erabakiz gero, ebazpenak behin-behineko likidazioa jasoko du, zerga zorra kalkulatzeko elementu erabakigarriren bati erasaten dionean.

Nolanahi ere, esan behar da hartutako ebazpena, hau da, alkatetza dekretua, Bermeoko Udalak ofizioz berrikus dezakeen administrazio egintza bat dela. Are gehiago dekretu horretatik ondorio larriak eratorri direnean, erakunde honen aburuz kexagileak sekula pairatu behar ez zuen betebeharrak juridikoa, alegia.

6. Arartekoak jakin badaki herritarrek hartutako erabakiak haiek alde aurretik emandako edo udal zerbitzuek emandako informazioak baldintzatzen dituela. Beraz, azpimarratu du erabat garrantzitsua dela herritarrek alde aurretik informazioa izatea eskaeretatik eratorriko diren kostu ekonomikoek buruz.





Bidenabar, garrantzitsua da nabarmentzea berariaz jakinarazi behar dela dagoeneko aurkeztutako eskaerei dagokienez edozein uko ere idatziz aurkeztu behar dela. Kasu zehatz honetan ez zen horrelakorik gertatu, kexagileak idatzian agertu duenez, eta, hain zuzen ere, horrek kalte handia eragin zion.

Toki entitate horrek ezin du zergadun guztien oinarrizko eskubide bat alde batera utzi, hain zuzen ere, zerga administrazioaren informazioa eta laguntza jasotzeko eskubidea, beren zerga eskubideak baliatzeari eta zerga betebeharrak betetzeari dagokienez. Hala, ez da onargarria Kode Zibileko 6.1 artikulura jotzea eta zerga bati eutsi beharra herritarraren ezjakintasunaren bizkar jartzea, toki entitate horrek ez zuenean aurretiaz ongi bete herritar bera informatzeko betebeharra, eskatutako atestatuaren kopia entregatuz gero herritarrarentzat sortuko liratekeen kostu ekonomiko zehatzei dagokienez. Gogoan izan behar dugu, gainera, polizia txostena egiteari esleitutako zerga kuota ezin dela sinbolikotzat jo.

Nolanahi ere, ebazpen honetan zehar azaldu dugun moduan, erakunde honen aburuz, zergapetutako zerga egitatea ez zen inoiz gertatu. Bidenabar, tasa erregulatzeko ordenantza onestea ordena publikoko okertzat hartuko litzateke, eta horrek ekarriko luke hala onetsitako ordenantza erabat baliogabea izatea ez ezik, baita ondoren ordenantza aplikatzean hartutako egintzak ere baliogabeak izatea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Autolikidazioa zuzentzeko eskaera atzera botatzea ofizioz ezestea, eta kexagileari itzultzea bere egunean ordaindu zituen kopuruak, sortutako balizko atzerapen interesekin batera. Horrez gain, toki entitate horrek 2020an Gernikako Epaitegira igorritako atestatuaren kopia eman zuenez, likidazio ematea zegokion, dokumentuen fotokopien kontzeptuarekin, entregatutako polizia atestaturatua osatzen duten orri kopuruaren arabera.

